# ISEI - IVEI

## Rs2.2.3 CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2. MAILAN: MATEMATIKA.

ISEI·IVEI

**Edizioa: 2016ko abendua**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarriza
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Mª Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
José Luis Tranche
Eduardo Ubieta

**Sarrera** 4

**Rs2.2.3.1 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek *Matematirako konpetentzian* eta konpetentziaren dimentsioetan (*Kantitatea; Espazioa eta forma; Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna eta Problemen ebazpena*) lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.** 6

**Rs2.2.3.2 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** 7

**Rs2.2.3.3 taula eta grafikoak: DBHko 2. mailako ikasleek *Matematikarako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, geruzaren arabera (irakasteredua eta hezkuntza-sarea).** 8

**Rs2.2.3.4 taula: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.** 9

**Rs2.2.3.4 grafikoa: DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza. 2015. urtea.** 10

## MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015[1].

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Matematikarako konpetentzian* duten errendimendu mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015eko Ebaluazio Diagnostikoetan lortutako emaitzak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbideratze tipikoa eta hiru errendimendu maila dituen eskala batean.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: Ikasleen sexua, konpetentziaren dimentsioak *(Kantitatea; Espazioa eta forma; Aldaketa, erlazioak eta ziurgabetasunak, eta Problemen ebazpena)*, hizkuntza-ereduak[2] eta ikastetxearen titulartasuna[3] (geruzak), indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmaila), aitaren eta amaren ikasketen gehieneko maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

*Matematikarako konpetentzian* guztizko batez besteko puntuazioak hauek izan dira: 2009 eta 2010ean (250), 2011 eta 2013an (251) eta 2015ean (246), 2009 eta 2010ean baino 4 puntu gutxiago eta 2013 baino 5 puntu gutxiago. Mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte; bost ebaluazioetan batez beste 3 puntu inguruko aldea izan dute.

*Kantitatea; Espazioa eta forma; Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasunak eta Problemen ebazpena* lau dimentsioei dagokienez, 2010, 2011, 2013 eta 2015eko ebaluazio diagnostikoetan zehar[4], mutilek neskek baino batez besteko puntuazio hobeak lortu dituzte dimentsio guztietan eta lau urteetan, *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasunak* dimentsioan izan ezik*;* izan ere, 2011n eta 2015ean mutilek eta neskek puntuazio berbera lortu dute (250). Batez besteko puntuaziorik altuena mutilei dagokie *Espazioa eta forma* dimentsioan 2010ean (254) eta 2015ean (253), eta baxuena neskei dimentsio horretan eta 2010. urtean (245). Neskek emaitzarik onenak lortu dituzten dimentsioa *Aldaketa, erlazioak eta ziurgabetasuna* izan da.

*Matematikarako konpetentzian*, erdiko errendimendu mailan eta maila aurreratuan ikasleen ehunekoaren bilakaerak ia ez du aldaketarik izan: % 84,8 2009an, % 83,9 2010ean, % 84,1 2011n, % 84,9 2013an eta % 83,6 2015ean. Erdiko mailan, nesken ehunekoa mutilen ehunekoa baino altuagoa da bost ebaluazioetan (3 puntuko batez bestekoa bost urteetan); hala eta guztiz ere, maila aurreratuan, mutilek neskak gainditzen dituzte bost ebaluazioetan (3,2 puntuko batez bestekoa bost urteetan).

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011 eta 2013. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm

[2] EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

[3] EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.

[4] 2019ko Ebaluazio Diagnostikoan ez ziren ebaluatu Matematikarako konpetentziaren dimentsioak, eta gainerako urteetan, guztizko puntuazioa 250ekoa da; izan ere, item kopurua txikia da dimentsio bakoitzerako eta ebaluazio bakoitzean aldatu egiten dira.

Matematikarako konpetentzian, geruza desberdinetan, 2009, 2010 eta 2011 urteetan, batez besteko puntuazioen bilakaerak itunpeko D, B eta A ereduetan aurkezten ditu puntuaziorik altuenak; sare publikoko D, B eta A ereduak datoz jarraian. 2013an, D eredu publikoak (251) 1 punturekin gainditu du itunpeko A eredua (250). Batez besteko puntuaziorik altuena 2011n eta 2013an izan da itunpeko D ereduan (262), eta baxuena A eredu publikoan (200) 2011n. *Matematikarako konpetentzian* 2009tik 2015era izan den bilakaera negatiboa izan da geruza guztietan, eta batez ere D eredu publikoan, 21 puntu egin baitu behera.

2015ean Ebaluazio Diagnostikoan erdiko mailan eta maila aurreratuan ehunekorik altuenean dagoen ikasleen profila hau da: familiak goi mailako ikasketak dituztenak (% 90,3), irakasmailarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 89,0), ISEK maila altua duena (% 92,1) eta autoktonoa (% 92,1). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duen ikasleen profila irakasmaila errepikatu duten ikasleena (% 60,5), familiak derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituen ikasleena (% 59,2), ISEK maila baxua (% 69,5) dutenena eta ikasle atzerritarrena (% 67,1) da.

## Rs2.2.3.1 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek *Matematikarako konpetentzian* eta konpetentziaren *dimentsioetan (Kantitatea; Espazioa eta forma; Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna eta Problemen ebazpena)* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | Guztira | **250** | **250** | **251** | **251** | **246** |
| | Neskak | 249 | 248 | 249 | 250 | 245 |
| | Mutilak | 251 | 253 | 253 | 253 | 247 |
| *Kantitatea* | Guztira | | **250** | **250** | **250** | **250** |
| | Neskak | | 248 | 247 | 249 | 249 |
| | Mutilak | | 252 | 252 | 251 | 251 |
| *Espazio eta forma* | Guztira | | **250** | **250** | **250** | **250** |
| | Neskak | | 245 | 247 | 248 | 247 |
| | Mutilak | | 254 | 252 | 252 | 253 |
| *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna* | Guztira | | **250** | **250** | **250** | **250** |
| | Neskak | | 249 | 250 | 249 | 250 |
| | Mutilak | | 251 | 250 | 251 | 250 |
| *Problemen ebazpena* | Guztira | | **250** | **250** | **250** | **250** |
| | Neskak | | 248 | 248 | 248 | 249 |
| | Mutilak | | 252 | 252 | 252 | 251 |






Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.

## Rs2.2.3.2 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | Errendimendu maila HASIERA | | | Errendimendu maila ERDIA | | | Errendimendu maila AURRERATUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak | Guztira | Neskak | Mutilak |
| 2009 | **15,1** | 14,4 | 15,6 | **60,0** | 61,9 | 58,3 | **24,9** | 23,6 | 26,1 |
| 2010 | **15,9** | 16,5 | 15,3 | **58,1** | 59,8 | 56,4 | **26,0** | 23,7 | 28,3 |
| 2011 | **16,1** | 16,5 | 15,7 | **57,5** | 59,0 | 56,1 | **26,4** | 24,5 | 28,1 |
| 2013 | **15,2** | 15,7 | 14,7 | **58,6** | 59,4 | 57,8 | **26,2** | 24,9 | 27,5 |
| 2015 | **16,4** | 15,9 | 16,7 | **61,8** | 63,6 | 60,2 | **21,8** | 20,5 | 23,1 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.

## Rs2.2.3.3 taula eta grafikoak:

**DBHko 2. mailako ikasleek *Matematikarako konpetentzian* lortutako batez besteko puntuazioen bilakaera, geruzaren arabera (irakasteredua eta hezkuntza-sarea).**

| | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| A Publikoa | 212 | 206 | 200 | 205 | 206 |
| B Publikoa | 241 | 234 | 235 | 228 | 220 |
| D Publikoa | 248 | 249 | 248 | 251 | 241 |
| A Itunpekoa | 252 | 253 | 254 | 250 | 249 |
| B Itunpekoa | 253 | 254 | 254 | 254 | 250 |
| D Itunpekoa | 259 | 260 | 262 | 262 | 257 |
| Guztira | 250 | 250 | 251 | 251 | 246 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.

### Rs2.2.3.4 taula:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza.**

| | | Ikasle % | | | | | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2009 | 2010 | 2011 | 2013 | 2015 | | 2015 | |
| ISEK | Maila baxua | 18,0 | 19,0 | 18,3 | 18,7 | **20,0** | 30,5 | 59,8 | 9,7 |
| | Maila ertain baxua | 22,5 | 21,5 | 21,9 | 23,8 | **24,5** | 18,7 | 63,3 | 17,9 |
| | Maila ertain altua | 27,7 | 28,4 | 28,6 | 27,8 | **28,1** | 12,5 | 63,6 | 23,8 |
| | Maila altua | 31,8 | 31,0 | 31,2 | 29,8 | **27,3** | 7,9 | 60,0 | 32,1 |
| Egokitasuna | Ikasmaila egokia | 80,5 | 79,8 | 81,3 | 81,1 | **81,2** | 11,0 | 63,0 | 25,9 |
| | Ikasmaila **EZ** egokia | 19,5 | 20,2 | 18,7 | 18,9 | **18,8** | 39,5 | 56,4 | 4,1 |
| Titulartasuna | Publikoa | 44,0 | 45,3 | 45,3 | 46,0 | **46,5** | 20,5 | 62,7 | 16,8 |
| | Itunpekoa | 56,0 | 54,7 | 54,7 | 54,0 | **53,5** | 12,8 | 61,0 | 26,2 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrig. Ikask. bukatu **gabe** | 3,1 | 3,0 | 3,4 | 3,4 | **2,9** | 40,8 | 54,6 | 4,6 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 16,7 | 15,8 | 17,8 | 15,9 | **15,4** | 27,0 | 64,0 | 9,0 |
| | Batxilergoa, HZ | 31,9 | 32,6 | 36,3 | 34,3 | **36,0** | 17,5 | 65,5 | 17,0 |
| | Goi mailako ikasketak | 41,6 | 41,5 | 42,5 | 46,4 | **45,7** | 9,7 | 58,8 | 31,5 |
| Jaioterria | Autoktonoa | 93,2 | 92,7 | 92,3 | 92,1 | **92,2** | 14,8 | 62,1 | 23,1 |
| | Atzerritarra | 6,8 | 7,3 | 7,7 | 7,9 | **7,8** | 32,9 | 59,6 | 7,5 |
| Familia-hizkuntza* euskara | Probaren hizkuntza euskara | 97,7 | 96,8 | 96,9 | 96,8 | **78,9** | 9,1 | 59,9 | 30,9 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | 2,3 | 3,2 | 3,1 | 3,2 | | | | |
| Familia-hizkuntza* euskara **EZ** | Probaren hizkuntza euskara | 51,4 | 49,6 | 52,4 | 53,5 | **21,1** | 18,1 | 62,4 | 19,4 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | 48,6 | 50,4 | 47,6 | 46,5 | | | | |

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013 eta 2015.

## Rs2.2.3.4 grafikoa:

**DBHko 2. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK (indize sozio-ekonomiko eta kulturala), titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, familiako hizkuntza eta probako hizkuntza. 2015. urtea.**




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2015.